

# **KULTURA-POLITIKA ARLOAK ANTOLATUTAKO JARDUERETARA EDO PRESTAKUNTZA-SAIOETARA JOATEKO PREZIO PUBLIKOAK ARAUTZEN DITUEN ORDENANTZA FISKALA**

## **I. XEDAPEN OROKORRAK**

### **1. artikulua**

Udal honek, Bizkaiko Lurralde Historikoko toki-ogasunak arautzen dituen Foru Arauan aurreikusita dagoenarekin bat etorriz, ordenantza honen eranskinean ageri diren zerbitzuak eskaini eta jarduerak egiteagatik kobratu beharreko tasak ezarri eta eskatzen ditu, ordenantza honetan ezarritako baldintzetan. Tasa horiek ordenantza honen parte dira.

### **2. artikulua**

Ordenantza udal-mugarte osoan aplikatuko da, Kultura Politika eta Euskara Arloak antolatutako prestakuntza-jarduerak direla eta.

## **II. ZERGA-EGITATEA**

### **3. artikulua**

Udalaren Kultura Politika Arloak zerbitzua ematea edo jarduerak egitea da zerga-egitate, eta izena ematen edo matrikula formalizatzen den unean bertan sortzen da ordaintzeko betebeharra.

## **III. SUBJEKTU PASIBOA**

### **4. artikulua**

Kultura Politika Arloak emandako zerbitzuen edo egindako jardueren onuradunak dira subjektu pasiboak dira, edo prezio publikoa ordaintzea eskatzen duten ekitaldi antolatuetara joaten direnak.

## **IV. ZENBATEKOA**

### **5. artikulua**

Eskatutako edo egindako zerbitzu edo jarduera bakoitzeko ordainduko dira eskaerazko zenbatekoak. Udal-zerbitzuak emateko edo udal-jarduerak egiteko, aldeaz aurretik eskatu beharko da zerbitzu edo jarduera horiek egitea, eta honekin batera doan eranskinean zehaztutakoa izango da haien zenbatekoa.

### **6. artikulua**

Egiten den jardueragatik edo zerbitzuagatik ordainduko da prezio publikoa, honela: — Kultura Politika Arloak zerbitzua eman edo jarduera egin aurretik zehazten duen kontu korrontean diru-sarrera eginda. — Onuradunen kontu korrontean kargua eginda. — Kultura Politika Arloak zehazten duen kontu korrontera banku-transferentzia egin da. — Online ordainketa eginda.

## 7. artikulua

Zerbitzu edo jarduera horiek egiteko, nahitaezkoa da ezarritako prezio publikoak ordaintzea, eta ordainketarik egiten ez bada, ez da dagokion zerbitzurik emango edo jarduerarik egingo. Hala ere, prezio publikoa ordaindu behar duenari egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik, zerbitzua edo jarduera ematen edo egiten ez bada, dagokion zenbatekoa itzuliko zaio.

## 8. artikulua

Prezio publikoak ez ordaintzeagatiko zorrak premiamendu-prozeduraren bidez eskaeratu ahal izango dira.

### ERANSKINA

#### PREZIO PUBLIKOEN ZENBATEKOAK

Musika-prestakuntzako ikastaroa	140,00 euro	
Robotika ikastaroa, STEAM campusa eta antzekoak	40,00 euro	
Uda Gazte eta Gabon Gazte jarduerak	25,00 euro	
Unibertsitateko kultura-aisialdia	55,00 euro	
Aisialdiko beste ikastaro eta jarduera batzuk	Gutxieneko prezioa	20,00 euro
	Gehieneko prezioa	300,00 euro

Aisialdiko beste ikastaro eta jarduera batzuk: batetik, gazte-programaren enpresa adjudikaziodunak emandako prestakuntza-ekintzak edo jarduerak dira (kontratuaren betebeharretan jasotakoak), eta, bestetik, Kultura Politika Arloak gazteen eskariaren edo une bakoitzeko beharren arabera zehazten duen beste edozein jarduera.

### V. HOBARIAK

## 9. artikulua

Gazteria Sailak antolatutako prestakuntza-ekintzetan, hobari hauek aplikatuko dira:

%20ko hobaria aplikatuko zaie Gazte Txartela edo hitzartutako beste txartel batzuk dituztela egiaztatzen duten erabiltzaileei, eta %40koa, Udalaren Gazteria Sailaren bazkide-txartela dutenei.

Unibertsitateko kultur aisialdiko programarako Kultura Sailak honako hobari hauek aplikatuko ditu:

Basaurin erroldatuak: 40,00 euro

### **XEDAPEN INDARGABETZAILEA**

Erabaki hau indarrean sartzen denean, indargabetuta geratuko da Kultura Politika Arloak antolatutako prestakuntza-ekintzetan edo jardueretan parte hartzeagatik ordaindu beharreko prezio publikoa aplikatzea eta arautzea erabakitzen duen beste edozein.

### **AZKEN XEDAPENA**

Erabaki hau Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Aurrekoa Ogasun Batzordeari aurkeztuko zaio, azter dezan, eta ondoren, Udalbatzaari aurkeztuko zaio.